

# KANALAK

Hasiera batean gure kanal propioa izango genuke. Gure bezeroekin harremanetan jartzeko erabiliko genukeen bide nagusia guk sortutako webgune bat izango litzateke. Denborarekin, gure proiektua zabalduko balitz gure denda osatuko genuke . Bertan gure proiektuko modelo desberdinak salduko genituzke. Aipatzekoa da, gure kanal propioa izateak etekin-marjina handiagoa eskainiko digula , baina horiek ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa eta garestiagoa da.



Denbora pasa ahala, beste enpresa bat ikusiko bagenu antzeko produktuak saltzen, elkartutako kanalen bidez zein kanal propioen bidez salduko genituzke gure produktuak. Hau da, bien arteko nahasketa eginez. Kasu honetan, beste kanal batekin elkartzeak marjina eskasagoa eskaintzen digu ere, gure kanal propioak erabiltzean baino bezero kopuru askoz handiagoarengana iristea ahalbidetzen digute. Horren ondorioz, gure salmenta handituko litzateke .